


BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



BENJAMIN HUARDEN BEGIRADA IPAR EUSKAL HERRIARI

Baionako Mediatekak, duela urte gutxi batzuek ge-
roztik, jatorriz Bloisekoa zen argazki zale batek,
Benjamin Huardek, XIX. mende amaieran egindako
irudiak gordetzen ditu argazki-funtsen artean. Lan-
bidez harakina zen Huard. Egileak album batean sar-
tu zituen berak eta bere familiak Iparraldera eginda-
ko bidaietako argazkiak. Bidaia horien arrazoia Marie
Rose Dandale emazteak Lapurdiko hiriburuarekin
zuen familia-harremana zen. Biarritz, Baiona eta Do-
nibane Garazi dira argazkietan jaso zituen hirietako
batzuk; saltokiak, merkatua, zubiak, hiri horien ikus-
pegi orokorrak baita landa-eremuko irudiak ere. Egin
zuen irudirik esanguratsuenetako bat Biarritzeko
Toki Eder etxea da, euskal estilo berriko lehen
etxea. Artikulua ilustratzen duten bi irudiak 1898an
eginak dira, Baionan.